

finantza etikoak eta ekonomia feminista

FINANTZEN ERALDAKETARANTZ: BIZITZA ALA KAPITALA

Emakumeek jasaten dituzte gehien txirotasuna eta desberdinkeria, eta finantza-sistema tradizionalatik at geratzen dira behin eta berriz.

%70

Munduko pertsona txiroenetatik %70a emakumeak dira.

%42

Munduko emakumen %42ak ez du kontu korronterik.

%20

Emakumeek finantza-entitate ofizial batengandik mailegua lortzeko %20 aukera gutxiago dute.

%4

Munduko finantza-zerbitzuen enpresetako zuzendarien %4 soilik dira emakumeak.

Bazterkeria finantzarioak emakumeen garapena eragozten du: hipoteka edota finantzazioa lortzeko aukera gutxiago dituzte, finantza-entitateengandik tratu-desberdinkeria jasaten dute...

SISTEMA KAPITALISTA KOLONIAL ETA PATRIARKALA

- Kapitalismoa ezin da mantendu arrazakeria kolonialik eta sexismo patriarkalik gabe.
- Borroka antikapitalistak, anticolonialak eta antipatriarkalak izan behar dira aldi berean.

FINANTZA SEKTOREA

- Oso maskulinizatua dagoen sektorea da.
- Finantza-entitateek joera **merkantilista, etnozentriko eta androzentrikoak** dituzte.
- Diruak balio aseptikoa du, ondorio ekosozialak, generokoak etab. ikusezin bilakatuz eta ezkatuz.
- **Kapitala eta bizitzaren arteko gatazka** dago.

FINANTZA ETIKOAK

- Nagusi den ekonomia-ereduaren aurrean, **alternatiba** dira.
- **Gizarte eraldaketarako tresna** dira.
- **Jasangarria, bidezkoa eta parte-hartzailea den garapena** bultzatzen dute.
- **Ekonomia feminista** eta finantza etikoen arteko **lotura** sustatzea beharrezkoa da, amankomuneko jarrerak dituztelako.

EKONOMIA FEMINISTA

Subjektibotasun finantzarioa harreman pertsonal eta sozialetan ere sartu da, dinamika espekulatuzaile eta berekoiekin.

Ekonomia feministaren tresnak:

- Ekonomia feminista bizitza-egoeretatik abiatzen da. **Ekonomia bizitzaren administrazioa da.** Politikatik ekin behar diogu, ekonomiarekin zer nolako bizitza finantzatu nahi dugun definitzeko. Ekonomiaren ikuspegi hegemonikoa deseraiki behar da.
- Sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonial-arrazistaren dimentsioen inguruko hausnarketa egiten du ekonomia feministak, **erresistentzia kolektiboak** eta bizitza erdigunean jarriko duten alternatibak aktibatu eta elikatzen.
- **Eraldaketa gauzatzeko susmatu egin behar da:** Ekonomia feministak zalantzan jartzen ditu sistema kapitalistak sortutako behar faltsuak, baita lan ordainduak soilik balioa duenaren ustea ere.
- Ekonomia feministak eskubide kolektibo gisa ulertzen ditu **zaintzak**. Pandemiak erakutsi du ekonomia patriarkala dela, berriro ere emakumeen eskutan egon direlako zaintza lanak.
- **Eraldaketarako ariketa politikoak** proposatzen ditu: Indibidualtasunetik kolektibotasunera, eta kolektibotasunetik indibidualtasunera, barne-koherentziaren beharra azpimarratuz.
- **Krisiek amankomuneko dena birpentsatzeko aukera ematen dute**, eta pertsonak eta bizitza erdigunean jartzen dituen ekonomia feminista, sozial eta solidarioa oinarri hartzeko abagunea dira.
- Orain arte, finantzak feminismoetatik lantzeko aukerak landu gabe zeuden, baina **Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala (FSMET)** antolatutako ondoren, ekonomia eraldatzaileen engranaje bilakatu dira feminismoak, ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministaren arteko zubiak eraikiz.

FINANTZA ETIKOEN ETA EKONOMIA FEMINISTAREN ARTEKO LOTURA

- Finantza etikoek izaera politikoa dute eta pertsonen askatasunen banaketa inklusibo eta bidezkoa sustatzeko konpromisoa dute. Finantza etikoak bizitzaren eta zaintza-espazioen jasangarritasunaren ikuspegitik gertuago daude. **Haien kezka ez da irabaziak lortzea edota kapitala pilatzea.**
- Konfiantzan, zaintzan eta bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako logika eta harremanen baitan artikulatzen da finantza etikoen **botere emantzipatzailea**. Boterearen deskolonizazioa beharrezkoa da gaur egungo nagusitasun androzentriko eta kapitalistaz haratago doazen ezagutza eta ekintzak ahalbidetzeko.
- Ekonomia feministaren eskematan sakontzea eta ekonomiaren esanhi berriak sustatea exijitzen du finantza etikoen **balio eraldatzaileak**. Menperatze-kode patriarkalak eta diruaren eta harreman finantzarioen neutraltasun faltsua salatzen ditu.
- **Genero-desberdinkeria suntsitu eta eraldatzeko** aukera izan daiteke finantza etikoen egitura finantza-sektorean edota bestelako sektoreetan.
- **Genero-ikuspegia sustatu behar da finantza etikoen eremuan:** Ekonomia feministak ezinbesteko ekarpena egin behar du finantza etikoetan. Bizitza erdigunean jartzearen ideia sustatu behar dute, horretarako politika eta ekonomiak sustatuz, finantza etikoek oraindik ere kapitalaren erreproduzioaren baitan garatzen dutelako haien lana. Nahiz eta ideia desberdinak dituzten, nagusi den logika kapitalistan erortzeko arriskua dute.
- **Ekonomia feminista emakumeen esperientziatik abiatzen da** eta sistema konbentzionalaren diskurtsoa zalantzan jartzen du, ongizate-estatuari atxikitako paternalismoa arazo gisa ikusten du, familia-eredu burgesari buruzko susmoak ditu, gorputzak politizatzen ditu, etxea, zaintza, sexualitatea, erreproduzioa etab. aldarrikatzen ditu... **Bizitza hobeko baten aldeko ekonomia** aldarrikatzen du, bizitzaren jasangarritasuna kontuan izango duena, bizitza erdigunean jarriko duena, eta, kapitalaren eta bizitzaren artean, bizitza aukeratuko duena.

Honako ekitaldirako eginiko posterra:

ekonomia feministari

BURUZKO VII. KONGRESUA.
BILBON, 2021 EKO UZTAILAREN 1, 2 ETA 3AN

* Finantzaz Haratago sarearen lana, honako adiskideen ekarpenari esker:
Cristina de la Cruz, Josefina Roco, Zalaa Pérez, Sarai Martín, Flora Partenio...

finantzaz
haratago